



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2021SUBV0001	
COD.EXP.	
ESPEDEIENTEA DIRU-LAGUNTZA	
EXPEDIENTE	
TITULARRA CARITAS	
TITULAR	

ALKATEAREN DEKRETUA

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, AZKOITIKO ALKATEAK,
Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1.eta 3., eta 23.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Udal honetako 2021eko aurrekontuetan, hainbat diru-laguntza zuzenean ematea aurreikusten da, gizarte politikaren arlo ezberdiñetan bere jarduerak garatzen dituzten elkarteentzako. Momentu honetan aurrekontua izanik eta Azkoitiko CARITASen eskabidearen aurrean

KONTUTAN HARTURIK

Toki-Araunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 21.1.f) artikuluan xedatutakoa, non Alkatetzari dagokion gastuak agintzea, bere eskumeneko mugaren barruan.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2. a) eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, era zuzenean ematen diren dirulaguntzak hitzarmen baten bidez formalizatu behar dira. Kasu honetan Azkoitiko Udala eta Azkoitiko Caritasen arteko hitzarmena onartzea proposatzen da.

Beraz, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENIK: Azkoitiko Udala eta Azkoitiko Caritasen arteko hitzarmena onartzea, entitate horrek 2021eko ekitaldian garatuko dituen jarduerak diruz laguntzeko.

BIGARREN: 12.425 euroko diru-laguntza ordaintzea 2021eko aurrekontuko 1.4000.481.230.00.10 partidari atxikituz eta kontu zenbaki honetan ordaintzea 3035 0031 76 0310005544.

HIRUGARREN: diru-laguntza bi zatitan emango da. Hitzarmena sinatu ostean partidaren % 75 ordainduko da (9.318,75 €) eta beste zatia diru-laguntza osoa justifikatzen denenan (3.106,25 €)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LAUGARREN: Erabaki honen berri interesatuari eta kontuhartzaileari ematea.

BOSTGARREN: Diru-laguntza honen emakida Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta Gipuzkoako atarian (gardentasunaren atarian) argitaratzea.

Erabaki honek amaiera jarri dio administrazio-bideari.

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatu zuen datatik kontatzen hasita.

ALKATEAK

IDAZKARIAK

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU42de689e-fdb0-43b6-b4b5-e622e6eb5507**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021SUBV0001-Resolución/Resolución (CARITAS)